Ur azpian bustiko ez den materialaren bila

EURI URAK bustitzen ez duen gainazalen inguruko berria aipatu izan dugu sail honetan. Oraingoan, are zailagoa dirudien zerbait aipatuko dugu: ur azpian ere lehor mantentzen den materiala.

WWW.MARITIME-EXECUTIVE.COM

Uretan siku mantentzen den material batek ontzietan animaliak itsastea eragotzi lezake.

Northwestern Unibertsitateko (AEB) Neelesh A. Patankar ingeniariaren lantaldearen arabera, gainazalak ur azpian lehor manten daitezen itxura eta ezaugarri bereziak behar dituzte. Garrantzi handia du zimurtasunak; zimurretan dauden "haranen" diametroak mikroia, hots milimetroaren milarena, baino txikiagoa izan behar du, horrela lortzen baita haran horietan ur lurrina pilatzea ur likidoaren ordez. Ezaugarri hori hainbat ur-intsektuk dute, beraz naturan existitu egiten da jada.

Horrelako material batek abantaila itzelak eskain ditzake. Itsasontzietan, esaterako, oso ohikoa da ur azpian dauden aldeetan animalia ugari itsastea; horrek urarekiko erresistentzia handitu eta erregai kontsumoa handitzen du. Ontziaren gainazala lehor mantentzeak arazoa saihesten lagundu lezake. ■

Stephen Hawkingek hitz egiteko darabilen softwarea askatu dute

DOUG WHELLER-CC BY

STEPHEN HAWKING astrofisikariak eta Intel konpainiak ACAT izeneko gizaki-makina interfazea liberatzea erabaki dute.

Sistema horren bidez, betaurrekoetan dagoen hargailu infragorri batek aurpegiko muskuluen higidura detektatu eta ordenagailu batera bidaltzen du, ahots robotiko bihurtuz.

ACAT interfazea Windows sisteman baino ez du funtzionatzen, eta gaixotasun neurodegeneratiboak dituzten pertsonen bizitza hobetzea espero da, hitz egiteaz gain ordenagailuetan oinarrizko hainbat eragiketa egitea ahalbidetzen baitu.

Inork sistema honen ezaguera zabalagoa nahi badu edota softwarea deskargatu nahi badu ondoko helbidera jo beharko du: https://01.org/acat. ■

Koloneko minbiziaren aurka, kafea

Koloneko minbizia kirurgikoki eta kimioterapiaz tratatutako gaixoekin egindako azterketa baten arabera, egunean lau kafe edo gehiago hartzen dutenengan minbizia berriz garatzeko arriskua %42 txikiagoa da kaferik hartzen ez dutenengan baino. Bizpahiru kafe hartzen dutenengan onura txikiagoa behatu dute, eta ia bat ere ez egunean bakarra hartzen dutenengan.

ttiki.com/341035
(Gaztelaniaz)

Material ez-magnetikoak magnetiko bihurtzeko bidea

Nature aldizkarian argitara emandako artikulu batean azaldu dutenez, Leedseko Unibertsitatean, Erresuma Batuan, kobrea eta manganesoa magnetiko izatea lortu dute molekula organikoekin konbinatuz. Modu horretan, material magnetiko berriak sortzeko bidea zabaldu dute.

ttiki.com/341036
(Euskaraz)

Lurraren barne geologia ezagunago, diamanteei esker

Diamanteak 150 eta 220 kilometro bitarteko sakoneran sortzen dira, eta inguruan dauden likidoak berenganatzen dituzte. Lurrazaleranzko bidea egitean euren ezaugarri kimikoak aldatzen ez direnez, lur azpiko informazio garrantzitsua garraiatzen dute.

ttiki.com/341037
(Gaztelaniaz)

Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak
multimedia
aholkularitza
edukiak

iametza interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16